

BIZKAIA SORTALDEKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Sozietatearen izena

Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A.

IFK

A95133567

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 2000ko azaroaren 30ean eratu zen eskritura publiko bidez, Mallabiako Industrialdea, S.A. izena zuela, honako honek baimendu ondoren: [125/2000 DEKRETUA, uztailaren 4koa, SPRILUR, S.A. baltzuari Mallabiako Industrialdea, S.A. baltzu berriaren kapitalean parte hartzeko baimena ematen diona.](#)

2012ko uztailaren 19an, [98/2012 DEKRETUA, maiatzaren 29koa, xurgatzearen ondorioz Okamikako Industrialdea, S.A. sozietate publikoa iraungitzeko baimena ematekoa](#) delakoak baimena eman ondoren, Mallabiako Industrialdea, S.A. (xurgatzailea) eta Okamikako Industrialdea, S.A. (xurgatua) sozietateen ezohiko batzar nagusietan bi sozietateek xurgapen bidez bat egitea onartu zuten, eta hau erabaki: xurgatutako sozietatea iraungitzea, eta haren ondare sozial osoa sozietate xurgatzaileari eskualdatzea; azken horrek, beraz, xurgatutako sozietatearen eskubideak eta betebeharrak bereganatu zituen oinordetza unibertsalaren bidez. Era berean, egungo izena hartzea erabaki zuten: Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

4110 Higiezinaren sustapena.

Sozietatearen helburua

Xedea industria-ekimena eta -inbertsioa bultzatu eta sustatzea da Bizkaiko lurralde historikoan, bereziki Lea-Artibai eta Durangaldean, honako hauek eginez:

- c) Industriak ezartzeko lur egokia sustatzea urbanistikoki, horretarako hirigintza-egitasmoak eta hirigintza-proiektuak sustatu eta idatziz, birpartzelazioak, konpentsazioa edo hirigintza-arloko legedian aurreikusitako beste edozein aukera erabiliz; bai eta edozein titulupean industriarako hiritartu eta sustatzeko lurra erostearen bidez ere.
- d) Pabiloi eta eraikin osagarri osatutako industria-guneak eraikitzea, eta haiek kudeatzea titularitatea erabat eskualdatu arte.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

Kapital soziala

8.188.589 €

Kapital sozialaren osaera

Sprilur, S.A.	% 51,00
Azpiegiturak, S.A.U.	% 39,11
Mallabiko Udala	% 5,45
Ermuko Udala	% 3,23
Zaldibarko Udala	% 1,21



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzea dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Juan Carlos Asín Bustamante jauna	presidentea.
José Antonio Ruiz de Loizaga Isasi jauna	presidenteordea.
Iñigo Ramos Bilbao jauna	idazkaria.
Milagros Mondragón Sagastagoya andrea	idazkariordea.
Mikel Oregi Goñi jauna	
Iñaki Villanueva Muñoz jauna	
José Miguel Artaza Artabe jauna	
Igor Barrenetxea-Arando jauna	
Iker Belaustegui Oar jauna	

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 55,56

2012ko aurrekontuak

www.euskadi.net

2012ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, 2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	16.102.441 €
Ondare garbia	7.112.585 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	249.900 €
Batez besteko langile-kopurua	2,75

Sozietatearen helbidea eta Webgunea

Arteiz, 4 - 48269 Mallabia (Bizkaia).

www.sprilur.es